



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/07/18

Bizkaiak ibilpide turistiko geologikoak sortzearen aldeko apustua egin dau, telebisako serieek emondako bultzadaz baliauta

Bizkaiko Batzar Nagusiek Talde Mistoaren arauz besteko proposamen bat onetsi dabe gaur. Bertan, “Bizkaiko interes geologikoko inguru eta lekuetan ibilpide turistikoak eta heziketakoak sortzearen ganean azterlana egin daiala” eskatzen jako Eusko Jaurlaritzari. EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Talde Mistoa proposamenaren alde agertu dira, eta PP eta Podemos Bizkaia abstenidu egin dira.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekidearen eretziz, Bizkaiak ondare geologiko “berezia eta interesgarria” dauka, baina “gitxi ezagutzen dana”, eta ondare hori interesgarria izango litzateke “turismoa erakarteko”. Bere eretziz, Barrikan eta Gaztelugatxeko San Joanen erroduan zan Tronu Dema moduko telebistako serieen “bultzada positiboa” baliau behar da, “hezkuntzan eta kulturaren oinarritutako turismoa” eregiteko. “Jendeak, Guggenheim Museoan edo Arte Ederretakoan pentseteaz gain, gure paisaiak be euki daitez buruan”, esan dau.

Talde Mistoaren proposamena “interesez” jaso dabe Batzarretako gainerako taldeek. Podemos Bizkaia eta PP izan dira bozketan abstenidu diran bakarrak, arrazoi batzuk edo besteak dirala eta. Iñaki Andrés popularrak adierazo dauenez, bere taldearen “zalantzak”, holango azterlanak egitearen “kostuaren eta eraginkortasunaren” ingurukoak dira. Podemos Bizkaia taldeko Nuria Atienzak esan dauenez, bere taldea abstenidu egin da, gai horren inguruko “azterlan asko” dagozalako daborduko, eta, bere esanetan, azterlan horreek “baliau daitezkezalako” ibilpide turistikoak sortzeko.

Talde sozialistaren berbetan, azterlana egitea “interesgarria” da, “ibilpide turistiko eguneratuaren” diseinura eroan daiteken katalogoa osatu ahal izateko. Holan, Ignacio Jerónimo batzordekidea bat etorri da proposamena aurkeztu dauenagaz, Eusko Jaurlaritza izan daiten Euskadiko Autonomia Erkidego osoa barruan hartuko dauen azterlanaz arduratu behar dana. Aldecoak, Araba eta Bizkaia artean dagon Sierra Salvada jarri dau gunea “komunen” adibide moduan.

EH Bilduk, bere aldetik, ekimenak Gipuzkoako lurraldean aurrera eroandakoaren “bideari jarraitzen deutsola” adierazo dau. Gipuzkoan Euskal Kostaldeko “Geoparkea” eratu zan, Mutriku, Deba eta Zumaiako udalerriak hartuz. Estadu osoan dagon zortzi geoparkeetako bat da. Holan, Mikel Bagan jeltzaleak, Uribe eskualdean, Barrika inguruneko ondare geologikoa ezagutuarazoteko lantzen ari dan sustapeneko egitasmoa be adibide moduan jarri dau.

MOTORISTENTZAKO BABESAK

Beste alde batetik, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua Batzar Nagusietara etorri da, oposizinoak eskatuta. EH Bilduk, BI-2701 errepedeko 24,5 kilometro puntuan motoristentzako babesak instalatari buruz galdetu deutso. Orain hiru urte puntu horretan motorista bat hil zan, alboko langan “babesik ez egoalako”. Zigor Isuskiza



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

koalizino abertzaleko batzordekideak gogorarazo dauenez, joan dan apirilean Aldundiak “50.000 euro” ordaintzeko zigorra jaso eban epaiketean, “ondare erantzukizuneko” kontzeptuan.

Pradalesek azaldu dauenez, foru titulartasuneko errepideetan babesak instalaletako plan berezia onesteko motoristen kolektiboagaz lortutako akordioari esker, “2010eko garagarrian” Aldundiak babeseko elementuak instalau ebazan BI 2701 errepidearen tarte horretan, Galdamesen. “Zoritxarrez”, motoristaren eta langaren arteko kolpea “babes bako” puntu batean izan zan, bertan “etxebizitza baterako sarbidea” dagolako.

Diputatuak Aldundiak azkenengo urteetan inbertsinoetan egin dauen esfortzua azpimarratu dau. “5,5 milioi euro” gastau dira motoristentzako babesetan. Pradalesek adierazo dauenez, 2010ean diseinatu zan plana “hiru urte eta erdi barru” bukatuko da, Aldundiaren esku dagozan errepideetako “46 kilometrotan” babeseko elementuak instalauz.

EH Bilduko Zigor Isuskizak “ahalegin handiagoz” behar egiteko eskatu deutso, babeseko elementuak “ahalik eta arinen” instalauta egon daitezkan. Adierazo dauenez, plana azkartzen ez bada, bere taldeak zuzenketa-eskeak sartuko ditu hurrengo aurrekontuetan, gaur egungo aurrekontua handitzeko: “500.000 euro urtean”. Pradalesek erantzun dauenez, aurton, bere sailak “700.000 euro” lizitatu ditu daborduko.

EZ DA TRAFIKO “ARAZO LARRIRIK” SORTU URDULIZEN

Beste alde batetik, Foru diputatua, EH Bilduk eskatuta, Urdulizko Ospitaleko Sarbideen inguruan erantzuteko be etorri da batzarretara. Koalizino abertzaleak, Denok Batera plataformak, Urdulizko Ospitalearen “irisgarritasunagaz erlazionautako arazoak konpontzeko” aurkeztu dituan errepide alternatibak aztertzeko interesik ete dauen galdetu deutso Aldundiari.

Pradalesek behin eta barriro adierazo dauenez, ospitalerako sarbideen arduradunak Urdulizko eta Sopolako Udalak dira, 2004 eta 2006 artean Foru Aldundiak, ordura arte foru titulartasunekoak ziran uri barruko zeharbideak laga ostean. “Aldundiak eskualdearen irisgarritasuna eta udalerrietarako sarbideak bermatzen ditu eta, hortik aurrera, udalak dira konponbideak bilatzearen arduradunak”, esan dau.

Pradalesek gogorarazo dauenez, Aldundiak ez dauka eskumenik gai horretan, ospitalerako “beharrezkoa zan bideragarritasuna” Eusko Jaurlaritzak diseinatu ebalako, aitatutako udal biakaz koordinatuta. “Aldundiagaz zerikusirik ez daukan gaia da”, esan dau. Gogorarazo dauenez, aurreko legealdiko EH Bilduko udal gobernua izan zan hiru administrazioen artean adostutako konponbidea “blokeau” ebana.

Herritarren plataformak planteatu dituan alternatibei jagokenez, Pradalesen eretxiz Udalak eurak dira balorau behar dituenak, baina, esan dauenez, ez dabe ezelango azterlan teknikoren euskarririk. Dana dala, bere berbetan, ospitaleak urtebete zabalik eroan ostean sortutako trafikoek ez dabe “arazo larririk sortu” ingurunean.

EH Bilduren ustez, diputatuak “baloiak kanpora bota ditu”. Eskualde bati zerbitzua emoten deuskan ospitale baterako sarbideak foru errepide sistemaren barruan egon behar dira, Zigor Isuskizaren ustez. “Toki mailakoa izateak ez dauka ez hankarik ezta bururik be”, esan dau. Sopolaren kontrako jarrera justifikauta dago, bere esanetan, udalerrri hori dalako “kaltetuena”, proiektuan jasotako errepideak “etxebizitza ingurunea zeharketan dauelako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
18/07/2017

Bizkaia apuesta por la creación de rutas turísticas geológicas aprovechando el tirón promocional de las series de televisión

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy una proposición no de norma presentada por el grupo Mixto en la que se “insta al Gobierno Vasco a estudiar, en coordinación con las demás administraciones afectadas, la futura creación de rutas turísticas y educativas en las zonas y puntos de interés geológico de Bizkaia.” PNV, EH Bildu, PSE-EE y grupo Mixto han votado a favor, mientras que PP y Podemos Bizkaia se han abstenido.

El juntero del grupo Mixto Arturo Aldecoa cree que Bizkaia cuenta con un patrimonio geológico “singular e interesante” pero “poco conocido”, que podría resultar de interés público “para atraer turismo”. Hay que “aprovechar”, a su juicio, el “flujo positivo” que series de televisión como Juego de Tronos, rodada en Barrika y San Juan de Gaztelugatxe, han concitado para construir un “turismo educativo y cultural”. “La gente podría pensar, además de en el Museo Guggenheim o en el Bellas Artes, en nuestros paisajes”, ha dicho.

La iniciativa ha sido acogida “con interés” por parte del resto de grupos junteros. Solo Podemos Bizkaia y PP se han abstenido en la votación por diferentes motivos. Para el popular Iñaki Andrés sus “dudas” se ciernen sobre “el coste y la eficacia” de realizar este tipo de estudios. Por su parte, Nuria Atienza, de Podemos Bizkaia, ha justificado la abstención de su grupo en que existen ya “muchos estudios” en este sentido que “podrían ser aprovechados” para crear rutas turísticas.

Al grupo socialista, la realización del estudio le parece “interesante” con el fin de disponer de un catálogo que pueda terminar en el diseño “de una ruta turística actualizada”. En este sentido, su juntero Ignacio Jerónimo ha coincidido con el proponente en que sea el Ejecutivo vasco el encargado de realizar un estudio que abarque toda la Comunidad Autónoma. Aldecoa ha puesto como ejemplo de zonas “comunes” la Sierra Salvada, entre Araba y Bizkaia.

Por su parte, EH Bildu considera que la iniciativa “sigue la estela” de lo desarrollado en territorio guipuzcoano con la creación del “Geoparque” de la Costa Vasca localizado en los municipios de Mutriku, Deba y Zumaia, uno de los ocho con los que cuenta el Estado. En este sentido, el jeltzale Mikel Bagan ha puesto como ejemplo también el proyecto de promoción en el que trabaja la comarca de Uribe para dar a conocer el patrimonio geológico de la zona de Barrika.

PROTECCIONES PARA MOTORISTAS

Por otro lado, diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido en Juntas Generales a petición de la oposición. EH Bildu le ha preguntado sobre la instalación de protecciones para motoristas en el punto kilométrico 24,5 de la carretera BI-2701, en donde hace tres años murió en accidente de tráfico un motorista “por la falta de protección” de un guardarraíl. El juntero de la coalición abertzale Zigor Isuskiza ha recordado que la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Diputación fue condenada a pagar el pasado mes de abril “50.000 euros” en concepto de “responsabilidad patrimonial”.

Pradales ha explicado que gracias a un acuerdo con el colectivo de motociclistas para aprobar un plan especial para instalar protecciones en las carreteras de titularidad foral, “en julio de 2010” la Diputación instaló elementos de protección en este tramo de la BI 2701, en Galdames. “Desgraciadamente” el impacto entre el motorista y la valla se produjo en un punto “sin protección”, ya que existe “un acceso a una vivienda”.

El diputado ha destacado el esfuerzo inversor realizado por la Diputación en los últimos años . Han sido “5,5 millones de euros” los gastados en protecciones para motociclistas. Pradales ha asegurado que el plan diseñado en 2010 concluirá “en tres años y medio” con la instalación de elementos de protección en “46 kilómetros” de vías forales.

Zigor Isuskiza, de EH Bildu, le ha pedido trabajar con “más ahínco” en este sentido para que los elementos de protección estén instalados “cuanto antes”. Ha advertido de que si no se agiliza el plan, su grupo incluirá enmiendas en los próximos presupuestos para que se incremente el presupuesto actual: “500.000 euros anuales”. Pradales ha respondido que este año su departamento ha licitado ya “700.000 euros”.

NO SE HAN GENERADO “GRAVES DISTORSIONES” DE TRÁFICO EN URDULIZ

Por otra parte, el diputado foral ha comparecido también, a iniciativa de EH Bildu por los accesos al hospital de Urduliz. La coalición abertzale ha preguntado a la Diputación si tiene interés en estudiar las alternativas viarias que la plataforma Denok Batera ha presentado para “solucionar los problemas de accesibilidad” del hospital de Urduliz.

Pradales ha insistido que los accesos al centro hospitalario son responsabilidad de los ayuntamientos de Urduliz y Sopela desde que entre los años 2004 y 2006, la institución foral cediera las travesías urbanas que antes eran de titularidad foral. “La Diputación garantiza la accesibilidad de la comarca y los accesos hasta los municipios y, a partir de ahí, son los ayuntamientos los responsables de buscar soluciones”, ha dicho.

Pradales ha recordado que la Diputación no tiene competencias en este asunto, ya que la “vialidad necesaria” para el hospital fue diseñada por el Gobierno Vasco en coordinación con los dos ayuntamientos afectados. “Es un tema ajeno a la Diputación” ha dicho. Ha recordado que fue el gobierno municipal de EH Bildu en la legislatura anterior quien “bloqueó” la solución que se había consensuado entre las tres administraciones.

Respecto a las alternativas planteadas por la plataforma ciudadana, Pradales considera que son los propios ayuntamientos quienes deben valorarlas, aunque ha advertido que las mismas no vienen apoyadas por estudios técnicos. En cualquier caso, y tras un año de apertura del hospital, los tráfico generados “no han generado –según él- graves distorsiones” en el entorno.

Para EH Bildu, el diputado “ha lanzado balones fuera”. Zigor Isuskiza cree que los accesos a un hospital que da servicio a una comarca deben formar parte del sistema foral de carreteras. “Que sea local no tiene ni pies ni cabeza”, ha dicho. La postura contraria de Sopela está justificada



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

porque, según él, este municipio es el “más afectado” ya que el vial proyectado “atraviesa una zona de viviendas”.